

# irudi iragankorrak



alfonso borragánen obra abiapuntutzat hartuko dugu esperientzian oinarritutako arteari buruzko gogoeta egiteko. Saiatuko gara hurbil ditugun gauzeekin begirada harritzen, eta bizi dugunaren erregistro iragankorarekin esperimentatzen, irudiak sortuz inguruak berak eskaintzen digunarekin.

## Helburuak:

- alfonso borragánen obrara eta sormen-prozesura hurbiltzea.
- Artean kolektiboak eta iragankorrak diren gauzen balioari buruz hausnartzea.
- Eskura dugunarekin sormen-esperientziak piztea.
- Irudiak sortzeko teknika ekologikoak ikastea.

## Aipamenak:

alfonso borragánen obra: <http://alfonsoborragan.com/>

alfonso borragáni elkarrizketa: <http://www.santandersshowcase.com/alfonso-borragan/>

Antotipia gidaliburua: [https://www.lacasaencendida.es/sites/default/files/el\\_laborencienda\\_antotipia\\_material\\_extra.pdf](https://www.lacasaencendida.es/sites/default/files/el_laborencienda_antotipia_material_extra.pdf)

Ziazerbekin antotipia egiteko tutoriala: [www.youtube.com/watch?v=MmgVvCn8IHs&ab\\_channel=LaCasaEncendida](http://www.youtube.com/watch?v=MmgVvCn8IHs&ab_channel=LaCasaEncendida)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** alfonso borragánen obra aztertuko dugu, arreta berezia eskainiz Black Ceramics eta Marentus bildumei eta «Daguerrolito» obrari (<http://alfonsoborragan.com/>)

Zer dute komunean alfonso borragánen proiektuek?

Zer material erabiltzen ditu bere obretan?

Bere obretan zerk dauka garrantzi handiagoa, prozesuak edo emaitzak? Alderik al dago obra beraren eta obraren erregistro edo dokumentazioaren artean?

Zer funtzio dute prozesu fotografikoek bere proiektuetan?

**2.** Elkarrizketa hau ikusiko dugu: <http://www.santandersshowcase.com/alfonso-borragan/>. Argazkigintzaren jatorriari buruz ikasiko dugu hari esker, eta teknika osatzen duten oinarritzko elementuetan jarriko dugu arreta. Ikusi adibideak.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Deriba kolektibo bat planteatuko dugu, toki baten miaketa. Testuinguruaren eta erabilgarritasunaren arabera, ikasketa zentro barruan edo hortik kanpo egin daiteke: jolastokian edo hurbileko parke batean, adibidez. Erregistratzeko modua ere erabakiko dugu: landa-koadernoak, argazkiak, tokiko materialak erabiltzea, etab.

**2.** Deriban zehar, xehetasunetan jarriko dugu arreta: zer ikusten dugun, zer entzuten... Toki ezaguna bada, miaketa arretatsu horri esker, esperientzia berria biziko dugu. Nolakoa da lekua? Zer elementu osatzen dute? Nor pasatzen da bertatik? Nolakoa zen toki hori

duela 5, 50 edo 500 urte?

**3.** Klasera bueltatzean, bikoteka jarriko gara eta esperientziaren erregistroa partekatuko dugu: oharra, marrazkiak, argazkiak eta ekarri ditugun materialak.

**4.** Antotipia bat egingo dugu, landareen propietate fotosentikorretan oinarritutako prozesu fotografiko ekologikoa: ([www.youtube.com/watch?v=MmgVvCn8IHs&ab\\_channel=LaCasaEncendida](http://www.youtube.com/watch?v=MmgVvCn8IHs&ab_channel=LaCasaEncendida)) Deriban lortutako materialak erabiliko ditugu: emultsionatutako paperean zuzenean koka ditzakegu edo esperientzian oinarritutako formak sortu eta horiek kokatu.

### Ondorioak eta lerro irekiak

**1.** Hezkuntza komunitatearekin proiektua nola partekatu nahi dugun pentsatuko dugu: nola egin ditzakegu gure prozesuaren partaide? Beste galdera batzuk ere bota ditzakegu: prozesuaren zer urrats iruditu zaigu interesgarriena? obra bera bere erregistrotik edo dokumentaziotik desberdin genezake?